



Natale Armendariz, Jon Calleja, Nora Etxebarria eta Ane Ozkoidi

Habiren gurasoak badira, Maitane Mazmela izeba da. Eta Armendarizekin eta Mazmelarekin, biekin elkartu da GAUR8 sehaska moldagarri hau eza-gutzeko.

Kuma izatetik jantzitegi iza-tera pasatzen den altzaria da. Erronka proposatzera etorri zitzaaien Ahec enpresa Mondragon Unibertsitatara: egurrezko altzari bat diseinatu behar zuten Slow Furniture for fast change egitasmoaren barnean. American Harwood Ex-

HABI: BIGARREN BIZITZA SEHASKENTZAT

Mundu azkar honetan, iraupen luzeko altzari bat sortu du ikasle talde batek

 **DISEINUA** / Maider IANTZI GOIENETXE

Mondragon Unibertsitateko ikasleen proiektuen artean oihartzun handiena izan duenetako bat da Habi: sehaska eta jantzitegi bat. Gogoeta bultzatzen du, ohituta gauden horretatik ateratzen delako eta iraupen laburreko altzari bati bizi berri bat ematen diolako. Sehaska hagitz sinplea da: haurra hazten denean, itxuraz aldatu eta helduen jantzitegi bilakatzen da.

port Council-ek antolatutako ekimena da, eta gazte sortzaileen artean diseinua ulertzeko modu askoz ere kontzienteago eta konprometituago bat eta produktuen iraunkortasuna sustatzea ditu xede. Zura da protagonista. Bederatzi proiektu aukeratu dituzte; tartean, Mondragon Unibertsitateko lau gaztek –Armendariz, Calleja, Etxebarria eta Ozkoidi– osatutako taldearena. Mazmela izan dute tutore.

Lehenik, merkatua aztertu zutela oroitu du Armendarizek; zer eskaintza zegoen begiratu eta gehienek egitura zehatz bat segitzen zutela ohartu ziren. «Sehaska izatetik mahai edo ohe handiagoa iza-



tera pasatzen ziren, baina este-tika bera zuten. Hortik atera nahi genuen, sehaskaren oinarriaren itxura aldatu eta beste funtzio bat eman».

Hala sortu dute jantzitegi bat, bizi osoan irauteko moduko, helduentzat pentsatua, apalekin, esekitokiekin eta azpian poltsak eta zapatak uzteko lekuarekin.

EZBERDINA ETA MINIMALISTA

«Sehaska oso sinplea da, ez du gauza handirik, eta hori da entitate, nortasuna ematen di-na», definitu du irakasleak. Egurrezko bi hanka ditu eta erdian harizko oihal bat, koltxoi berezi batekin. «Ezberdina da. Diseinu minimalista».

«Zer pentsatua ematen du», erantsi du Natalek, «ohituta gauden horretatik ateratzen baita. Oso iraupen motzeko altzaria da sehaska eta hori birplanteatzen du. Haur-aulki moldagarriak badira; aulki bilakatzen dira. Sehaskaren kasuan, ordea, ez zegoen ezer».

Slow egitasmoaren haritik jaio da Habi. Hain azkar mugitzen garen mundu honetan, iraupen luzeagoko altzari bat diseinatzea da asmoa, haritz gorria, astigarra, gereziondoa edota tulipa amerikarra erabiltia. MUko ikasle taldeak astigarra baliatu du.

Habi proiektuan lan egin duten MUko lau ikasleak, Natale Armendariz, Jon Calleja, Nora Etxebarria eta Ane Ozkoidi, altzaria sortzeko prozesuko hainbat etapatan. Azken irudian, emaitzarekin. Sehaska eta jantzitegia, biak altzari berean. Uxio DA VILA

Kuma iraupen mugatuko produktua izanik, potentziala ikusi zioten. Horrexegatik aukeratu zuen unibertsitateak ere, ematen zituen aukerengatik, Ahec enpresarentzat baliagarria izan zitekeelakoan.

Lehen etapa horretan, hiru tutorek lagundu zieten kontzeptua garatzen. Estatu mailako puntako diseinatzaile batzuekin eskuz esku lan egin zuten; Jorge Penadesekin, adibidez. Gero, La Navarra enpresak fabrikatu zuen prototipoa. Unitate bakarra dago momentuz. Madrilgo erakusketa batean aurkeztu zuten, Fernan Gomez kulturgunean. Hilabetez egon zen ikusgai.

Sehaska berezi honek zer bide egingen duen galdetuta, «kontatuko dut?» galdegin dio Natalek Maitaneri, irribarre konplizez. «Proposamenak jasotutugu, eta gogotsu gaude.

Fabrikazio prozesua nolakoa den ikusi dute, diseinatzaileekin lan egin dute, erakusketa bat antolatu dute, argazki saioak egin... Errealitate puntu bat egon da hasieratik bukaeraraino

Slow Furniture for fast change proiektuan aukeratu dute. Gazte sortzaileen artean diseinu kontziente eta konprometituago bat sustatzea du xede. Zura da protagonista

Baloratzen ari gara, jabetzaren inguruko kontuez enteratzen», erran du.

«Helburua mugitzea eta erakustea da, baina ez dakigu ziur», gaineratu du irakasleak.

Mondragon Unibertsitatean lan asko egiten dituzte taldeka eta Habi ere horrela sortu dute, akademian bertan aurkezteko proiektu gisa hasieran, Mazmela bera tutore zela.

«SEKULAKO ESPERIENZIA»

«Slow egitasmoan aukeratu gintuztenean, Jorge Penades Madrilgo diseinatzailearekin ordu erdiko bilerak egiten hasi ginen astero. Hobetzeko puntuak esaten zizkigun. Kontzeptualki funtzionatu arren fabrikatzean sor zitezkeen arazoen inguruan ere asko lagundu zigun. 2022ko otsail-martxoan hautatu eta azarora arte luzatu zen proiektuaren garapena eta fabrikatzea», zehaztu digu sortzaile gazteak.

Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniari-tza ikasten ari da, eta «sekulako esperientzia» izan da berarentzat Habi altzaria sortzeko bide osoa. «Unibertsitatek ateratakoan zein aukera dauden ikusten duzu, zer jende mugitzen den, nola funtzionatzen duen. Oso aberasgarria izan da».

«Gure unibertsitatea desberdintzen duen gauzetako bat da proiektu errealean aritzea», agertu du irakasleak, «industriatik gertu». Lan akademiko bat zen hau, produktua diseinatzekeo metodologia propioa zuena, baina ikasleek fabrika zio prozesua nolakoa zen eta atzeko gauza guztiak ere ikus-tea nahi zuten.

«Diseinatzaileekin kontaktatzeko aukera izan dute, erakusketa batera salto egitean zer gauza hartzen diren kontuan ikasi dute, argazki saioak egin dituzte sustapenerako... Errealitate puntu bat egon da proiektuaren hasiera-hasieratik garapen eta salmentaraino».

Elkarrizketak ere egin dituzte. Oro har, feedback ona izan dute, asko zabaldu da.

«Hemen proiektu pila bat ateratzen ditugu aurrera. Batzuek oihartzun handiagoa dute, besteek txikiagoa, eta hau oihartzun handiena izan duenetako bat da», baieztatu du Maitane Mazmelak.

Natale Armendarizek ez du argi bere etorkizuna. «Diseinua gustatzen zait; esperientzia hau izan ostean, are gehiago. Arlo industrial baina, altzariak ditut gogokoago». Bide luze eta ederra opa diegu Habiri eta lau sortzaileei!